



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

## INKESTA

Proiektuaren garrantziari buruz eta instalazioaren eta haren zerbitzuen ezaugarri orokorrei buruz Arrasateko herritarrek duten iritzia lagin adierazgarria edukitzeko, ekainean inkesta bat egin zen, eta telefonoz 500 elkarrizketa egin ziren.

### Ondorioa:

- Gehiengo handi bat **oraingo azokaren instalazioak birmoldatzearen eta hobetzearen alde dago, irekitze egunak eta ordutegia zabaltzearen alde, eta saltoki eta zerbitzu gehiago jartzearen alde.**

Inkestaren emaitza azpimarragarrienak hauek izan ziren:

- % **90ek** uste dute Arrasatek **eduki behar duela azoka moderno bat**, zerbitzu guztiez hornitua.
- Inkesta erantzun duten ia pertsona guztien iritziz (% **97**) inportantea da azoka Arrasateko **herrigunean** egotea.
- Elkarrizketatu dituztenen % 60k ez dute uste azokarako eraikin berri bat beharrezkoa denik, eta % 33k aurkakoa uste dute. Hau da, **3 herritarretatik 2k uste dute EZ dela beharrezkoa eraikin berri bat.**
- Gehiengo handi batek uste du merkatuaren **oraingo egoera** (% 85) **eta sarbidea** (% 80) **onak edo oso onak direla.**
- Elkarrizketatu dituztenen % 65ek adierazi dute **instalazioen egoera erdipurdikoa edo txarra dela.**
- Inkestan egindako **eskaera** nagusiak dira gai hauei buruzkoak: azoka **egun gehiago egitea** eta **ordutegia zabaltzea; saltoki eta zerbitzu** eskaintza handiagoa, oro har.
- Elkarrizketatu dituzten ia denek (% 92) eskatu dute bideak jarri daitezela Arrasateko herritarrek proposamenak egin eta parte hartu ahal izateko.